

Aurkezpen publikoa

TRATU ONEN ALDEKO PLATAFORMA-PLATAFORMA POR LOS BUENOS TRATOS

2006ko azaroa

Tratu onen aldeko Plataforma-Plataforma por los buenos tratos topagune ireki bat izateko sortu da, emakumeenganako gizonen biolentziaren kontra gizarte zibil antolatua eta autonomo baten ikuspegitik hausnarketa egin eta Ermuko herriaren eremuan jarduteko.

Izan ere iazko azaroan sortu zen, Ermuko emakume bat hil zutenean; gertakari hark herritarren erantzuna, emakume-biktima eta beraien familiekiko elkertasuna eta emakumeen kontrako indarkeriaren gaitzespena ekarri baitzuen.

Berdintasunerako Udal Sailak gertakari horiek aztertu eta horien kontra egiteko sare edo konpromisozko plataforma bat eratzeke ekimen baten parte hartzea proposatu zien herriko hainbat elkarte, zerbitzu eta gizarte eragilerik.

Hasiera baten 24 kolektibok egin zuten ekimen horrekin bat: 5 hezkuntzaren eremukoak, 14 gizarte eta kulturaren eremukoak eta beste 5 berdintasunaren eremukoak, baina geroago beste batzuk ere atxiki dira 29ra arte, sindikal eremukoak batzuk.

Lehenengo bilera martxoan izan zen... eta ordutik hona hilero-hilero bildu gara, hausnarketa egin eta bakoitzak bere iritzia emateko, azkenean emakumeenganako biolentzia zer den, horren jatorria, plataforma honen helburuak eta lehentasunezko jarduera eremuak definitu arte.

Gure ustez emakumeenganako indarkeria diskriminazioaren eta emakume eta gizonen arteko desberdintasunaren ondoriozko larriena da, eta badakigu legeek, soil-soilik, ez dutela arazoa konpontzeko.

Halaber, honakoa azpimarratu nahi dugu:

- Emakumeenganako gizezkoen indarkeria ez dela eremu pribatuko edo familiarreko arazo bat, baizik eta gizon-emakume guzti-guztiori dagokigun gizartearen gaitz publiko eta politikoa. Pertsona guztion konpromisoa da arazo horri irtenbide bat ematea.
- Munduko leku guztietan gertatzen dela, iraganean eta gaur egun, iparralde zein hegoaldeko emakume gazte, nagusi, pobre edo aberatsen kontra.
- Indarkeria fisikoa, psikikoa, hilketak, sexu-erasoak... etab. badira, baina baita ere indarkeria ekonomikoa, laborala, instituzionala, gerrak, diskriminazioak... eta ahaztu ezin ditugun beste hainbat eta hainbat gauza.
- Gure gizartearen tolerantzia maila handia dagoela desberdintasunean oinarritutako jokabide batzuekiko –batzuk egunero-egunerokoak- nolabait indarkeria eta tratu txartzat har daitezkeenak.
- Esku hartu beharra dagoela gatazka pertsonalen konponketan indarkeriaren erabilera deslegitimizatzeko.
- Tolerantzia hori ahalik eta gehien murrizteko –ahal bada zerora- lan egin nahi dugula, EMAKUME ETA GIZONEZKOEN BERDINTASUNEAN oinarritutako TRATU ONAK aukeratzat emanez.

Tratu txarrei aurre egiteko lderdi positiboetan oinarritu nahi dugu, pertsonen arteko tratu onak suspertuz. Horrek, gutako bakoitza zoriontsuago egiteaz gain, berdintasunezko gizarte bat, justuagoa eta solidarioagoa sustatzen lagunduko du.

Gure izenak berak laburbiltzen du arazo larri honi buruz dugun ikuspegia: TRATU ONEN ALDEKO PLATAFORMA.

Hori horrela, gure jarduera ondorengo lortzera dago bideratuta:

- Maila pertsonal zein kolektiboan emakumeenganako biolentziarik ez erabiltzeko eta ez toleratzeko konpromisoa hartzea, erantzun autonomoa eta antolatua emanez.
- Gizarte-sentsibilizazio eta salaketa lana egitea herritar, erakunde sozial, politiko, sindikal, hedabide, instituzio publiko, pribatu eta abarren kontzientzia eta konpromisoa lortzera bideratutako ekintzak sustatuz.

- Ukitutako pertsonetikiko elkartasuna adieraztea eta edozein esparrutan (pertsonalean, familiarean, lagunartean, auzoan, lanean, ikastetxean...) emakumeenganako gizonen indarkeria suposatu lezakeen edozeren gaitzespena etengabe agerian uztea.
- Ikuspegi positiboa eskaintzea, ikuspegi biktimista baztertuta, TRATU ONEN adibideak eman eta ikuspegi horretan oinarrituz, sormenezko aukera alternatiboak imajinatzen animatzea.
- Beste erakunde eta talde batzuekin koordinatu eta lankidetzan aritzea, arazo larri honen aurkako borrokan ahaleginak batuz.
- Erakunde eskudunei erantzukizuna hartu eta benetako berdintasuna susper dezatela exijitzea, agenda politikoetan lehentasuna emanez eta eremu orotan (prebentzioan, ikerketan, emakume biktimen laguntzan, baliabideetan, zerbitzuetan...) emakumeenganako indarkeriaren kontra aktiboki lan eginez.

EKINTZAK ETA PROIEKTUAK

Lankidetzak eta proposamenak:

Santixau jailetako pegatinak honako mezuak zituztela: “¡Fiestas sin agresiones sexistas!” eta “Santixaueetan emakumeok edonon!”

Basaurin emakume ermuar bat hil zutenean, plataforma osatzen duten taldeetako batek proposatuta, herritarren kontzentrazio baterako deialdia zabaldu ondoren, kontzentrazio hartan parte hartu zuen plataformak.

Egun, plataforma osatzen duten 9 kidek 10 orduko tailer baten ari dira lanean, indarkeriaren esangura soziokulturalarekin, kontrolatzeko modutzat erabiltzearekin edo feminitatearekin lotutako kontzeptua keta aspektuak aztertzen.

Plataforma eratzen duten taldeek, gainera, amankomunean jartzen dituzte beste taldeekin eremu honetan bakoitzak burutzen dituen ekintzak, ondorioak eta emaitzak batzeko.

Esan beharrik ez, plataforma honen asmoa elkarte, erakunde eta pertsona kopururik handiena inplikatzeko dela. Informazioa behar izanez gero Emakumeen Topalekura joatea -Izelaieta 12- edo 943 17 10 30 telefonora deitzea besterik ez duzu.

Azkenik, Emakumearen Kontseiluak proposatutako ekimenarekin bat eginik, Ermuko gizon-emakume guztiak gonbidatzen ditugu datorren larunbatean, azaroak 25, arratsaldeko 7etan Orbe Kardenalaren plazan egingo den kontzentrazioa eta egun horretan izango diren ekitaldietan parte hartzera.

TRATU ONEN ALDEKO PLATAFORMA - PLATAFORMA POR LOS BUENOS TRATOS

Eskolabarri-Eskolabarriko Guraso Elkarte-S. Pelaio ikastetxea- S. Pelaio Guraso Elkarte, Anaitasuna Ikastola, Ongarai Eskolako Lehen Hezkuntzako Institutua, Ongarai Bigarren Hezkuntzako Institutua, Huntzorri, AECC, Ayuda en Acción, Cáritas, Cruz Rojo Eibar-Ermua, Pasialeku zahar-etxea, Nagusilan, Solidaridad América Latina, Eskilarapeko Ateneoa, Arreta Irratia, Alboka Musika Eskola, Mugarte, Ermuko Euskal Pilota Taldea, Gaztela-Mantxako kultur zentroa, Andaluziako kultur zentroa, San Pelaio Jai Batzordea, CC.OO., LAB, Sustapen Zentroko ikasle ohiak, Ermuko Emakumeen Asanblada, Alargunen Elkarte, Emakumearen Sustapenerako Zentroa, Izarraitz antzerki-taldea.